

KINTANA MEDIUM.—Gure adiskide Xabierri irudimenik ez zaio falta, jakituriarik ere ez; baina, beste adiskide batek inoiz esan duen bezala: asko daki, baina ez berak uste duen haina.

Orain, gabetik goizera, *medium* bihurtu zaigu, eta bihurtu behar, bihurrikeriak egiteko. Dena dela, gauzak ondo egitea da hoberena eta ofizio berri hau aski ongi betetzera datorrigu. Zorionak, adiskidea. Baina nork sinets ultratumbatik mintzatu behar zitzaigunik? Hor daude hobiz bestaldetiko ageriak **HABE** aldizkarian (77. zenbakiaren 6-8. orrialdeetan). (H)abe Mariarekin ezer ikustekorik ez zuen eta poeta zen ezkererik espero ez, nondik mintza zitekean adiskidearen ahotik ezik? Hara hor Aresti zena medio, Kintana dena *medium*. Adiskide zena ordea, inondik mintzatzekotan, maiz kezkatzen zen deismoaren araberrazko zerutik izan beharko zuen eta horrek poztu ez ezik esperantzaz betetzen gaitu eta teologoen balioa goratzen. Hara hor nondik teologo anitz **duen** erakundea zoriontsu.

Baina, huts handia nabari da, zeren nonbait ez bai zen ohartu herioak eraman zuenak beste lagunik ere bazuela haren mintzairaren esateko erak eta erabili zituen ideiak eza gutzen zituenik; baita ere haren idatziak lekuko. Aresti berak esana: «Hitzaren medioz ihardukitzen dena, hura da poeta». Baina *medium*-aren hitzak ez dira Gabriel zenarenak. Joxe Azurmendik esana digu: «zein gutxi bereizten zituen pentsamendua, sentimendua, emozioa». Hortik zetorzkion bere barnetikako kontradizioak, *medium*-aren hitzetan nabari ez direnak. Agian, ultratunban zuzendu ez badu lehendikako portaera, hitzok ez dira bere zentzuarekin bat datozenak.

Hortarako ez da estrukturalistek berriki erabiltzen dituzten analisi estadistikorik behar, eguzkiaren argia bera be-

zain argi dago *medium*-aren ahotiko esaldiak Kintanaren gogo eta ahotikoak direla eta ez Arestirenak. Gainera, Jainkoz gure dudak ditugunok nola sinets iratxoez? Hala ere, jostatzeko, ez da gaizki lau partean partitutako fikzio saio hori euskal literaturaren bitxikerizko zakua hornitzeko. Ongi ekarri!

Humorea, H-kin edo H-rik gabe, on da osasunerako. Izan ere gizonak **azkenen** galdubeharrezko gauza preziagarria da humorea. **Beraz, oso** ondo egiten du Xabierrek ihauteriak heldu baino **lehen** mozorro agertzeaz. Bai. Egungo egoera sozio-politikoaren *flash* ximple hori agertzeaz oso ongi iduritzen zaigu. Uka ezinekoa da hain gaizki ez dagoela, baina izenpe-tzailearen ikuspegitik.

Oso **ongi, bere** gogoa hobeto gordetzen jakin balu; aldiz, lau **parteotatik** lau haizetara *pro domo* nabari zaio.

Lehen partean, ideia berria ez bada ere, oso ondo euskaltzain zaharrei erretiroa ematea; tirorik ematen ez zaien artean. Baina, txo!; ez gero hilekin edo hilen ordeztzatzen direnekin hornitzeko. Zeren Edgar Allan Poe-ren gisakoez soilik ez bai duk hornitzen inongo Akademiarik, eta gutiago Hamlet-en aita bezalakoeekin.

HABEko euskaltegietan ari den ikasle berriren bati, ikasle zaharrago batek azken parte hori zela-hako euskaraz edo erdarara itzuliz adierazten baziok, laster esango dik: «Eramos pocos y parió mi abuela; ya se han metido con el padre». «...?». «Si, con el padre de ése tío que se llama Hamlet».

Baina, gure zaharrek ere ultratumbatik horrela mintzatzeko bazez, haiek ere esatekorik izango dute.

Dena dela, **bidena** bederen, Kintanak beretzat eser lekurik behar badu, **zahartu** baino lehen beharko du. Bestela, nork aguantatu **bere** zahartzarrea? Aulkirik eman ezik, behar bada lor **dezake** «a silla» edo *hazila* sartzea.

Bigarren **partean** alderdi pekatariak salatzen ditu. Abertzale alderdi **konkretu** bat, PNV/EAJ, agintariak euskararik

ez dakitelako. Baina ez digu esaten zein alderditan dauden euskara dakitenak. Salatzen duen alderdia, aldiz, nik dakidanez, abertzaleetan bakarra da buru izateko euskara jakitea eskatzen duena. Ala, besterik ere ba ote? Ez digu argitzen non dauden euskaldun hutsak eta HABEN dabiltzanak noraezean uzten ditu. (H)Ave Maria, nondik dator argia? Horretan ez digu mesederik egin *medium*-ak. PSOEek faxistak omen ditu bere barnean, lehen Franco-ren funtzionari izanak eta abar. Baina aldakuntzak geroztik bizi garenok bakarrik dakigu pekatu horretatik ere ez dela libratzen talde politiko bat bera ere. Etika ez da kantitatez neurtzen. Euskararen etsaiak ez ezik zanpatzaileak ere, banakaren bat bederen talde guzietan kokaturik daude. Ez da gauza berria.

Hala ere, igartzen da *medium*-arentzat nor ez den pekatari, edo behintzat isiltzeak hala adierazten du. Isilunea salartari. AP soil soilik nabarmentzen da zintzotasunean. Hor ere zenbait balantzaka ezagutu ez baginuz, eta ageriak ageri Espainia guziko buru duten nagusia «euskaltzalea» omen, leku-kotasun idatziaren arabera.

Zakurra eta katua a diskidantzan jartzen ditu EMK, PCE, LKI taldeak Tixillardegirekin parekatuz. Dantza makabroegia ez ote?

Hirugarren partea *Ukronia* hutsa, edo haren jarraipena.

Laugarrena, izanaren ezina, edo izan nahi baina ezin; *medium*-ak muxin!

Baina G. Aresti beti kezkatzen zuen proletargoa non da? Nola diteke lau parteak elite baten bilaka? Euskara eta kultura, kultura eta euskara; herri xeha, populua, kontutan hartu gabe. Zeruko egoitzan txaketa kanbiatu ote du?

Linbotik ez zen mintzatuko. Linboan, egotekotan ere, *medium*-a egongo zen. Hura ez zen bide erdian gelditzeko gizona. Behar bada inpernutik? Baina bere heterodoxia gorabehera oso ona eta zuzena zen eta, gainera, bere liburuetarik bat bera ere ez zen pasa Vatikanoko *Index*-era. Pasatu bazen jakineraziko ziguten eta euskararentzat ohore izango zen, maize-

nik Nobel sariarekin parekatuak izan direnez *Index* horretara eramanak.

Baina, langileriakin ez oroitzeak kezkatzen gaitu. Hor dugu metamorfosia, agian manipulaturia. Bata dela medio, bestea *medium*.

Azkenik, lehen eta hirugarren parteak haintzat hartzekotan, nola ez zioten galde goraintziak ematea zein hizkuntzatan egin? Argitu behar zuen guztiok ulertzeko. Guztiok ala elebidunok? Bestela, goraintziekin batean, mezularitza okasio eder hori beteaz, goraintzi hartzaileei euskara ikasteko eskaria egitea tokatzen zitzaion legez.

J. San Martín